

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

ZANBRANAKO UDALA

Idazkari-kontuhartzaile lanpostua betetzea

Uztailaren 29ko 1732/1994 Errege Dekretuak, gaikuntza nazionalako toki administrazioako funtzionarioentzat gordetako lanpostuak betetzeari buruzkoak, xedatutakoaren arabera, Zanbranako Udaleko lanpostu hori gaikuntza nazionala duten toki administrazioako funtzionarioentzat gordeta dago, idazkaritza-kontuhartzailera azpieskalako funtzionarioentzat.

Lanpostu hori hutsik geratuko da laster, titularrak uko egingo baitio 2016ko ekainaren 11n.

Apirilaren 2ko 7/1985 Legeak, toki araubidearen oinarriak arautzen dituenak, 21.1.h) artikuluan xedatutakoari atxikiz, hau ebazten dut:

Lehenengoa. Hamar egun balioduneko epea irekitzea, dagokion iragarkia ALHAOn argitaratzen den egunetik hasita, hautagaiek Zanbranako Udaleko idazkaritza-kontuhartzailera plaza behin-behineko izendapen bidez betetzeko eskaerak aurkezteko. Eskaerak dekretu honi erantsita dagoen ereduari jarraituta egin behar dira.

Gaikuntza nazionala duen toki administrazioako funtzionario bat izendatuko da, lanpostuaren azpieskala eta kategoria bereko hautagaiek lehentasuna izanik; kontu hori behar den moduan egiaztatuko da.

Hautagai bat baino gehiago aurkezten badira, honako hau proposatuko da izendatua izateko hautagaizat: puntu gehien lortu duena parte hartzeko eskaerak aurkezteko epea bukatzen den egunean Ogasun eta Herri Administrazio Ministerioak argitaratutako azken merezimendu lehiaketan.

Bigarrena: Jakinarazten da idazkari-kontuhartzaile lanpostuak 4. hizkuntza eskakizuna duela esleitura, derrigortasun datarik gabe. Lanaldia osoa izango da.

Hirugarrena: Aukeratutako hautagaiaren behin-behineko izendapena proposatzea Arabako Foru Aldundiari.

Laugarrena: Ebazpen honen berri ematea udalbatzari, egiten duen lehenengo bilkuran.

Alkateak agindu eta izenpetzen du eta, nik, idazkari naizen aldetik, fede ematen dut.

Zanbrana, 2016ko maiatzaren 17a

Alkate-lehendakaria

AITOR ABECIA JIMÉNEZ DE ABERASTURI

Eranskina

"jaun/andrea (NAN:.....; helbidea, jakinarazpe-
netarako:.....herria),

telefonoa:, gaikuntza nazionala duen funtzionarioak,
azpieskalakoak, eta egun toki erakundean lanpostua
betetzen duenak, ondokoa

Adierazten du

Jakin du Lantziego, Zanbranako Udaleko idazkari-kontuhartzaile lanpostua hutsik geratuko dela laster, titularrak uko egingo diolako 2016ko ekainaren 11n kenduko delako, eta lanpostu hori behin-behineko betetzeko aukera dagoela, uztailaren 29ko 1732/1994 Errege Dekretuak, gaikuntza nazionalako toki administrazioko funtzionarioentzat gordetako lanpostuak betetzeari buruzkoak, 30. artikuluan xedatutakoari jarraituz.

Betetzen dituela, bere ustean, lanpostu horri dagozkion eginkizunak behar bezala betetzeko eskatzen diren betekizunak, eta, beraz, indarrean dagoen legeriaren arabera eta dagozkion izapideak betez,

Eskatzen du

Zanbranako Udaleko idazkari-kontuhartzaitza lanpostua behin-behineko izendapen bidez betetzeko prozeduran parte hartzea.

Honekin batera, ondoko agiriak aurkezten dira:

NANaren fotokopia

Gaikuntza nazionalako funtzionarioa dela egiaztatzen duen agiria.

.....n, 2016koaren.....(e) an.

Sinadura....."